




Jadanik irekita dago **Prebentzioaren Europako Astea 2011**n parte hartzeko epea

Astea azaroaren 19tik 27ra egingen da, eta helburua da jendea kontzientziatzea hondakinak eta haien kalteak murrizteko eragin beharraz. Astean hondakinak prebenitzeari lotutako ekintzak garatzen dituzten denetariko erakundeek parte hartzeko aukera izanen dute (toki entitateek, hezkuntza erakundeek, enpresek, unibertsitateek, GKEek eta abarrek).

Hona hemen aipatu ekintza batzuk:

- Hondakin gehiegi sortzen direla ohartaraztea; hartara, prebentzioa kontzeptuari buruzko tailer eta mintegiak antolatzen dira, edota enpresan/erakundeetan hondakinak murrizteko kanpainak, e.a.
- Hobeki ekoiztea, bilgarri edo enbalajeak murriztuta edo ekodiseinuaren bidez.
- Hobeki kontsumitzea; adibidez, kontsumo arduratsuko proiektuak garatuz.
- Produktuen bizitza luzatzea (bigarren eskuko merkatuak eta truke-jarduerak sustatzea).
- Hondakin gutxiago botatzea; adibidez, etxeko eta eskolako konpostajerako esperientziak zabaltzea, edalontzi itzulgarriak erabiltzearen aldeko kanpainak bultzatzea.

Prebentzioaren Europako Asteak prebentzio-ekintzen arloko ideia gehiago jarri ditu erakunde parte-hartzaileen eskuetan, bai eta sentsibilizazioa zabaltzeko materialak ere, webgune honetan: <http://http://www.ewwr.eu>



www.ewwr.eu

